

Euskadin 30 urtetik beherako ama duten jaioberrien portzentajea Europako txikiena da (2019an jaiotako guztien % 18,2)


Lehenengo seme-alaba jaiotzen denean amaren batez besteko adina, aldiz, Europako altuena da (31,9 urte 2019an)

2019an Euskadin 30 urtetik beherako ama izan zuten 2801 ume¹ jaio ziren. Urte horretan jaiotako ume guztien % 18,2 baino ez ziren.

Euskadin 30 urtetik beherako ama zuten jaioberrien kopurua nabarmen jaitsi zen 2011 eta 2018 bitartean eta 2019an pixka bat egin zuen gora.

Baina 2019an izandako igoera hori nazionalitate atzerritarra zuten ama gazteengandik jaiotako umeen kopurua handitu zelako dator, nazionalitate espainiarra zuten ama gazteek izandako seme-alaba kopuruak beheranzko joera jarraitu baitzuen. 2019an izandako jaioberrien artean, erdiek baino gehiagok nazionalitate atzerriko ama izan zuten (% 58,3).

Euskadin 30 urtetik beherako ama izan zuten jaioberri* kopuruaren bilakaera, amaren nazionalitatearen arabera (zenbaki absolutuak)




* Bizirik jaiotakoak.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten datuak oinarri hartuta (Jaiotzen Estatistika)

¹ Bizirik jaiotako umeak dira.

Euskadiko datuak Europan 2018an izandakoekin (azken datu eskuragarriak) alderatzen baditugu, ikusiko dugu Euskadin 30 urtetik beherako ama zuten jaioberrien portzentajea Europako txikiena dela eta, gainera, alde handia duela Europako batezbestekiko (% 41,1).

**30 urtetik beherako ama zuten jaioberrien portzentajea
EBko herrialdeetan 2018an izandako jaiotze guztiekiko (%)**




*Euskadiko datuak 2019koak dira

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten datuak (Jaiotzen Estatistika) eta Eurostaten datuak (Fertility indicators) oinarri hartuta

Hala ere, hain zifra txikia ez da harritzekoa kontuan hartzen badugu Euskadin lehenengo seme-alaba jaiotzen denean amek izaten duten batez besteko adina: 2019an ia 32 urte (31,9, hain zuzen ere); Espainiako altuena, Galizia eta Madrilekin batera (31,9 erkidego horietan ere).

Bai eta Europako altuena ere, 2018ko datuei erreparatuz gero (horiek dira Europako daturik berrienak). European amek lehenengo seme-alaba izaten dutenean beren batez besteko adina 29,2 urte dira.

Lehenengo seme-alaba izatean amaren batez besteko adina Europar Batasunean 2018an (urteak)



*Euskadiko datuak 2019koak dira

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustaten datuak (Jaiotzen Estatistika) eta Eurostaten datuak (Fertility indicators) oinarri hartuta